

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Lankidentzan aritzea beste enpresekin ezinbestekoa da bakoitzak eskain dezakeen hobea emateko enpresa proiektua aurrera joateko. Ibilbide bakoitzean sortzen diren beharrak aztertu izanda, hainbat enpresa desberdinekin lankidetzan arituko gara gure proiektua aurrera eramateko. Gure proiektuan parte hartuko duten enpresen artean, tour kudeatzaileak, aerolineak eta trenbide enpresak aurki ditzakegu. Gure enpresak hiru puntu nagusi ditu: joan-etorriak, ostatua eta jarduerak.

Hori guztia egiteko, enpresa hauekin jarri gara harremanetan nagusiki: Iberia, Renfe, eta **Civitatis, Eroski bidaiak**, bere eskutik lan egin ahal izateko. Honako hauek izango dira ibilbide bakoitzeko funtsezko aliantzak.

I. IBILBIDEA

JOATEA	<ul style="list-style-type: none"> • Madril-Toledo → Renfe
BERTAN	<ul style="list-style-type: none"> • Toledo-Talavera de la Reina → Autocares Toletum • Talavera de la Reina - Cáceres, Cáceres-Mérida, Mérida-Almendralejo → Renfe • Almendralejo - Sevilla → Monbus
ITZULERA	<ul style="list-style-type: none"> • Sevilla-Madril → Iberia

Ibilbide honetan zehar 6 hotel desberdinetan ostatuko gara. Bereziki hotelen kokapenean zentratu gara gune on batean egoteko hiri erdigunean. Gure enpresa hotelen kontratazio guztientzat arduratuko da, bezeroei hiru janariak bertan izateko posibilitatea emanaz. Madrilen igarotako egunetan zehar **Santo Domingo hotelean** ostatuko gara. Toledon **Abad hotelean** ostatuko gara. Talavera de la Reinan **Be Live City Center Talavera** hotelean ostatuko gara. Cáceresen **NH Collection** hotelean ostatuko gara. Geroago Almendralejora abiatuko gara, bertan **Acosta Centro hotelean** ostatuko gara eta gure ibilbidearen azken egunak Sevillako **Catalonia Giralda hotelean** egongo gara.

Ibilbide honetan egindako jarduerari dagokionez, Madrilen lau ekintza desberdinak egingo ditugu. Madrilen bi museo desberdinak bisitatuko ditugu. Baita, bi bisita gidatuak egingo ditugu Madriletik. Toledon hiru bisita gidatuak egingo ditugu, Toledoko katedrala bezalako leku historikoak bisitatzen. Talavera de la Reinan bi bisita gidatuak egingo ditugu. Cáceresen egonda bisita bat egingo dugu bertatik, baita txango bat Cáceres alboan dauden bi herritarra. Guztia **Civitatis** enpresan bidez gestionatuko dugu, garraioa joateko eta bueltatzeko baita. Meridan, bi ibilbide egingo ditugu. Bat Civitatis-ekin sinatutako hitzarmen bati esker, ibilbide bat dohainik egingo dugu, Meridatik. Almendralejo egondako egunan zehar bisita gidatu bat planifikatuko dugu, herri txiki eta bitxi hau ezagutzeko barrutik. Azkenik geure, azken geltokian Sevillan, Alcazar, Katedrala eta Giralda bisitatzeko tiketak erosi ditugu.

II. IBILBIDEA

JOATEA	<ul style="list-style-type: none"> • Madril-Roma → Iberia
BERTAN	<ul style="list-style-type: none"> • Roma-Marsella → Flixibus • Marsella-Barcelona → Vueling

	<ul style="list-style-type: none"> • Barcelona-Tarragona, Tarragona-Córdoba, Córdoba-Cadiz→ Renfe
ITZULERA	<ul style="list-style-type: none"> • Cadiz-Madril→ Iberia

Gure enpresak lehentasuna eman dio hotelen kokapena bikaina izateari. Beraz, ostatu guztiak hiriaren erdigunean daude, erosoago bisitatu ahal izateko. Ibilbidearen hasiera Erroman izango da "**Mercure Roma Centro Colosseo**" hotelean. Hurrengo helmugan, Marseillan, "**Hôtel Mercure Marseille Centre Vieux-Port**" ostatuko gara. Bartzelonan, **Mercure Barcelona Condor** hotelera joango gara. Aurreko hiru hiri hauten **Accor hotels**-ekin sinatutako hitzarmenaren ondorioz, elkarte honen barruko kate batekin lan egingo dugu beti, Mercure. Beste hirietan ez ditugu aukera onak aurkitzen enpresa honen eskaintzaren barruan. Kataluniako kostaldetik jaitsita, Tarragonan, "**Hotel Lauria**" hotelean hartuko dugu ostatu. Cordoban gauden bitartean, "**Eurostars Azahar**" hotelera joango gara, aurreko ostatuak bezala, hiriaren erdigunean. Eta gure ibilbidea amaitzeko, gure azken egonaldia Cadiz erdigunean izango da, "**La Posada del Mercado**" hotelean. Hotel guztietan gosaria dago prezioaren barne, gu geu, enpresa bezala, *lunch* bezalako bat eskainiko dugu, eta afariak beti libreak izango dira, lekuko gastronomia frogatzeko.

Ibilbide honetan egindako bisita gidatu guztiak eta bisitatutako lekuen tiketa **Civitatis** enpresaren bidez lortu ditugu. Ibilbide honetan egindako jardueri dagokionez, Erroman, hainbat monumentu bisitatuko ditugu, adibidez, Erromako koliseoa, eta baita, bisita gidatu bat. Marsellan gida bisita bat egingo dugu honako gune turistikoak bisitatzeko. Bartzelonan, **Civitatis** enpresarekin sinatutako kontratuari esker, bus-tour bat eskaintzen da hiri osoan zehar, bere historia hobeto ulertzeko. Gainera, monumentu garrantzitsuak bisitatuko ditugu. Tarragonan gauden egunetan, hiriko hondakin erromatar garrantzitsuenak bisitatuko ditugu, eta bezeroei egun libre bat hartzeko aukera eskainiko diegu. Era berean, Cordoban bisita gidatua egingo da, eta denbora librea izango da monumentu garrantzitsuak bisitatzeko. Ibilbidea amaitzeko, Cadiz bisitatuko dugu eta Caleta hondartzatik ilunabarra ikusiko dugu. Hori guztia **Civitatis** enpresari esker egin ahal izan da.

III. IBILBIDEA

JOATEA	<ul style="list-style-type: none"> • Madril-Quito → Iberia • Quito-Balra uhartea → LATAM
BERTAN	<ul style="list-style-type: none"> • Galapago uharteetatik → Celebrity Cruises (Azpikontratazioa)
ITZULERA	<ul style="list-style-type: none"> • Balra uhartea-Quito → LATAM • Quito-Madril → Iberia

Kasu honetan, nazioarteko hegaldi guztiak **Iberiak** beteko ditu, eta behin Ekuadorrera iritsita **LATAMek** Galapago uharteetara iristeko behar diren hegaldiak emango dizkigu, han **Celebrity Cruises** enpresaren azpikontratuari esker, haiek gurutze-bide bat egingo dute Galápagos Uharteak ezagutzeko.

IV. IBILBIDEA

JOATEA	<ul style="list-style-type: none"> • Madril-Frankfurt → Iberia
BERTAN	<ul style="list-style-type: none"> • Frankfurt-Amsterdam → Deutsche Bahn • Amsterdam-Krakovia, Krakovia-Hamburgo → Lufhtansa • Hamburgo-Bergen, Bergen-Hamburgo → Deutsche Bahn
ITZULERA	<ul style="list-style-type: none"> • Hamburgo-Madril → Iberia

ACCOR Hotels hotel-katearekin sinatutako hitzarmen bati esker, haiek eskainiko digute ibilbide honetan Europan zehar ostatu hartzeko aukera; zehazki, bisitatutako hirien erdigunean kokatutako **Novotel** hoteletan egingo dugu ostatua, eta hotelak emango ditu gosaria eta eguneko txangoak egiteko *lunch*-a.

Jarduerei dagokienez, Frankfurt hiriko Museo Juduarekin lan egiten dugu eta haiek emango dizkigute sarrerak eskatzen dituztenentzat. Gainera, **Civitatis** enpresa arduratuko da Amsterdamgo auzo juduan eta Anna Franken etxean (Sinagoga hiri horretan bertan) egiten diren txangoak betetzeaz, Krakoviako auzo juduan free tour bat egiteaz eta Auschwitzeko kontzentrazio-esparrura joan eta bertara bisita egiteaz. Hala ere, Bremenen, Bergen-Belsen bisitatzeko, **Bus Charter Germany** enpresa arduratuko da lekualdaketaz, eta hispaniar hizkuntzako domeinua duen tokiko gidari batek gidatuko ditu bidaiariak.

Aieroportuerara ailegatzean, haiek hiri erdialdeetan ez daudenez, hainbat enpresen zerbitzuak kontratatu ditugu lekualdatze funtzioa betetzeko eta aireportutik edo trenbide gure hotelera dagoen bidea egiteko. Alemanian **Bus Charter Germany** Amsterdamen; **Osa Bus Amsterdam**, Polonian; **Wika Trans Poloniarekin**.

V. IBILBIDEA

JOATEA	<ul style="list-style-type: none"> • Madril-Tel Aviv → eDreams • Tel Aviv-Nazaret → Egged
BERTAN	<ul style="list-style-type: none"> • Nazaret-Belén → Egged
ITZULERA	<ul style="list-style-type: none"> • Belén- Tel Aviv → Egged • Tel Aviv- Madril → Iberia

Ibilbide honetan zehar 2 hotel desberdinetan ostatuko gara. Alde batetik, nazareten igaroko ditugun egunak **Golden Crown Old City Hotelan** ostatuko gara. Beste aldetik, Belenen **IHG hotel** enpresaren hotelean ostatuko gara.

Ibilbide honetan zehar, hainbat jarduera eskaintzen ditugu. Alde batetik, Nazareten igaroko ditugun egunetan **Nazarete Village** bisitatuko dugu, kristoko garaia nolakoa zen ulertzeko. Beste aldetik, lur santuko lekuak ezagutzeko, **De Bein Harim Tourism Services** enpresarekin harituko gara. Lur santuko lekuak, hala nola Nazaret eta Galileako itsasoa ezagutuko ditugu. Hala, ruta au Tel Aviv etik hasten da. Era berean, **The Church of the Annunciation** bisitatuko dugu. Beste aldetik Belenen **Judah Tours** enpresarekin lankidetzan harituko gara eta egun bateko Tour-a egingo dugu Belenen, hiria guztiz ezagutzeko. Era berean, ibilbide bat egingo dugu **Bein Harim Ltd-ekin**, Jerusalem eskualdeko lurralde santuak ezagutzeko

